

LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL

ZEHARKAKO MODULUA

ERDI MAILAKO ETA GOI MAILAKO

Laneko Prestakuntza eta Orientabidea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL**

**PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL**

ZEHARKAKO MODULUA

ERDI MAILAKO ETA GOI MAILAKO

Laneko Prestakuntza eta Orientabidea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**
Lanbide Heziketako eta Etengabeko
Ikaskuntzako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Viceconsejería de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Argitaraldia: 1.a, 2008ko abendua

Ale-kopurua: 600 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: José A. Álvarez Quiroga, Eduardo Aginako Bilbao y Josu Lamikiz Landabaso


Koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTOA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta diagramazioa: TRESDETRES

Imprimatzea:

L.G.:



Iraupena: 100 ordu
UDen kopurua: 8

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzia oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzea eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzea gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

AURKIBIDEA

UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	03. or.
0 0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena	04. or.
1 1. unitate didaktikoa: Lan-munduratzeko eta bizi osoan ikasteko prozesua	07. or.
2 2. unitate didaktikoa: Lan-taldeak	11. or.
3 3. unitate didaktikoa: Gatazka kudeatzea	14. or.
4 4. unitate didaktikoa: Lan-kontratuak	16. or.
5 5. unitate didaktikoa: Hitzarmen kolektiboak	21. or.
6 6. unitate didaktikoa: Soldata eta Gizarte Segurantzaren prestazioak	24. or.
7 7. unitate didaktikoa: Laneko arriskuei buruzko sarrera eta identifikazioa	27. or.
8 8. unitate didaktikoa: Prebentzioa kudeatzea	30. or.

Unitate didaktikoen sekuentziak eta denboralizakia

EDUKI MULTZOAK							UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4	M5	M6	M7		
							UD0: Moduluaren aurkezpena	1 ordu
X							UD1: Lan-munduratzeko eta birtza osoan ikasteko prozesua	8 ordu
	X						UD2: Lan-taldeak	10 ordu
	X						UD3: Gatazka kudeatzea	9 ordu
		X					UD4: Lan-kontratuak	17 ordu
		X					UD5: Hitzarmen kolektiboak	9 ordu
		X	X				UD6: Soldata eta Gizarte Segurantzaren prestazioak	15 ordu
				X			UD7: Laneko arriskuei buruzko sarrera eta identifikazioa	14 ordu
					X	X	UD8: Prebentzioa kudeatzea	17 ordu
							GUZTIRA	100 ordu

1. multzoa: Lanbide-orientazioa
2. multzoa: Talde-lana
3. multzoa: Lan-kontratuak eta hitzarmen kolektiboak
4. multzoa: Gizarte Segurantzaren prestazioak
5. multzoa: Arriskuak ebaluatzea
6. multzoa: Arriskuen prebentziorako plana
7. multzoa: Prebentzio- eta babes-neurriak

0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA		Iraupena: 1 hru						
Ikaskuntzaren helburuak:								
<ol style="list-style-type: none"> 1. Moduluaren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere. 2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea. 3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea. 4. Moduluaren unitate didaktikoen arteko eta moduluaren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea. 5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. 								
EDUKIAK		Multzok						
		1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 							
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura. • Moduluaren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluaren helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 							
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluaren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 							

JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
11. Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.	1	10 m.	x	x	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturteik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.
12. Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 m.	x	x	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluen gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Arbela. ▪ Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa. ▪ Kronogramak. ▪ Informazioa duten fotokopiak.
13. Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 m.	x	x	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
14-E1. Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa.	5	30 m.	x	x	Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeak aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.



OHARRAK

- Nahikoa izango da I1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- I4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (I) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (In-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. I-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.
- Goi-mailako prestakuntza-zikloetarako Lan Prestakuntza eta Orientabideko lanbide-moduluak 99 ordu ditu ezarrita, beraz, programazio honetan aurkeztutako unitate didaktikoren bat edo bestean iraupen-egokitzapena egin beharko da.

1. unitate didaktikoa: LAN MUNDURATZEKO ETA BIZITZA OSOAN IKASTEKO PROZESUA		Iraupena: 8 hrdu						
IE1: Lan-munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.								
Ikaskuntzaren helburuak:								
<ol style="list-style-type: none"> 1. Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratzea, enplegatze aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa. 2. Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatzea. 3. Profilarri lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztea. 4. Tituludunarentzako enplegu-sorgune eta lan-munduratzeko gune nagusiak identifikatzea. 5. Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztea. 6. Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikustea. 7. Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratzea. 								
EDUKIAK		Multzoak						
		1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea. • Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea. • Tituluaren lanbide-sektorea zehaztu eta aztertzea. • Norberaren ibilbidea planifikatzea: <ul style="list-style-type: none"> ○ Beharrekina eta hobespeneekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea. ○ Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak. ○ Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeko zerrenda bat ezartzea. • Lan-munduratzeko beharrezko dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea. • Lana bilatzeko teknikak eta tresnak. • Sektorako enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua. 	x						
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lana bilatzeko teknikak eta tresnak. • Erabakiak hartzeko prozesua. • Sektorako enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua. • Europar ikasi eta enplegatze aukerak. Europass, Ploteus. 	x						
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea. • Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea. • Autoenplegua lan-munduratzeko hautabidetzat baloratzea. 	x						

JARDUERA		METODOLOGIA			BALIABIDEAK		
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplik	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			ir.	ik.			
<ul style="list-style-type: none"> Lan-munduratzeko egokirako lan-ibilbideak baloratzea. Lanarekiko konpromisoa. Lortutako trebakuntza baliaraztea. 							
I1-E1. Ebaluazioa, prestakuntza-ibilbidearen eta ibilbide profesionalaren lanbide-potentzialari eta diseinuari buruzkoa.	1-2-3-4-7	1 h.	x	x	Irakasleak ikasleei galdera sorta bat emango die, euren burua ebaluatu eta lan-merkatuaren aldagaiak identifikatu ahal izateko. Galdera sorta horren bidez, gidatutako jarduerak praktiko gisa, ikasleak bere gaitasunak baloratu ahal izango ditu, dituen indarguneak ezartzeaz eta horien balioa finkatzeaz gain. Gainera, lan-merkatuaren eskaerakiko, prestakuntza osagarriaren eta etengabearen alorrean zein gaitasun dituen identifikatuko du. Ikasleak jarduerak praktiko autonomo gisa osatuko du galdera sorta.	Helburua da ikasleari metodo bat erakustea bere burua ebaluatzeko eta lan-merkatuaren eskaerakiko zein gaitasun dituen jakiteko. Horrez gain, jarduerak praktiko autonomoak baliagarri izan daiteke E1 ebaluazio-elementu gisa.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen. Ikasleari buruzko datuak jasotzea erraztuko duten galdera sorta edo dokumentuak.
I2. Azterketa, lan-merkatuaren inguruko informazioari eta Interneten bilatzeko aukerei buruzkoa.	4	2 h.	x	x	Irakasleak, lan-merkatuari buruzko azalpen baten bidez, lana bilatzeko prozesuan kontuan hartu beharreko lan-adierazte jakin batzuk emango dizkio ikasleari. Irakasleak lanarekin lotutako edukietako web-orrietan sartzeko erakustaldi bat egingo du. Ikasleak web-orri horietan jarduerak praktiko autonomoak egin beharko du: laneko datu-baseetan alta hartzea.	Ikasleak laneko web nagusietan (INEM, Lanbide...) alta hartu beharko du.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen. Ikasleari buruzko datuak jasotzea erraztuko duten galdera sorta edo dokumentuak.
I3-E2. Erakustaldia, eta praktika gidatua eta autonomia, curriculum vitaearen eta elkarrizketa pertsonalen inguruan.	5-7	2 h.	x	x	Irakasleak, curriculumari, elkarrizketei eta aurkezpen-gutunei buruzko azalpen baten bidez, ikasleari jarduerak honen edukiak erakutsiko dizkio. Irakasleak, praktika gidatuaren bidez, aurkezpen-gutun bat eta curriculum vitaearen ere du bat betetzen lagunduko dio ikasleari.	Jarduerak amaitzean, ikasleak berorren aurkezpen-gutuna eta curriculum vitaearen osatzen jakingo du.	Ordenagailu bat ikasleko.. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen. Ikasleari buruzko datuak jasotzea

					Ikasleak, praktika autonomoaren bidez, curriculum vitaea osatzeko berorren eredia egingo du, aurkezpen-gutunarekin batera.		erraztuko duten galdera sortak edo dokumentuak.
14. Autoenpleguari buruzko azalpena.	5-6	1 h.	x	x	Irakasleak autoenpleguari buruzko azalpen bat egingo du. Azalpen horretan, ideia bat negozio-plan bihurtzeko beharrezko urratsak emango ditu. Ikasleak negozio bihur daitezkeen ideiak ekarriko ditu.	Jarduera honen helburua da enpleguarekiko benetako hautabide gisa autoenplegua aurkeztea.	Ordenagailu bat ikasleko.. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.
15. Azalpena eta erakustaldia, administrazio publikoek eskainitako informazioa lortzeko moduaren inguruan.	5	1 h.	x	x	Irakasleak administrazio publikoan sartzeari buruzko azalpen bat egingo du. Komeni da ikasleari mota horretako eskaintzak argitaratzen dituzten aldizkari ofizialetarako eta webguneetarako sarbidea erakustea.	Jarduera honen helburua da enpleguarekiko benetako hautabide gisa administrazio publikoetarako sarbidea aurkeztea.	Ordenagailu bat ikasleko.. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.
16. Praktika gidatua, lana bilatzeko eta lan-munduratzeko estrategiei eta teknikei buruzkoa.	5	1 h.	x	x	Jarduera praktikoa gidatua, irakasleak ikasleari taula huts batzuk emango dizkio. Ikasleak taula horiek bete beharko ditu, lana bilatzeko bide bakoitzaren abantailak eta eragozpenak adierazita.	Jarduera honen helburua da lanaren eta lanbide-orientazioaren inguruan ikusitako guztia laburtzea. Ikasleak betetako galdera sortak ebaluazio-elementu gisa balio dezake.	Ikasleari buruzko datuak jasotzea erraztuko duten galdera sortak edo dokumentuak.
OHARRAK							

2. unitate didaktikoa: LAN TALDEAK		Iraupena: 9 ordu						
IE2: Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.								
Ikaskuntzaren helburuak:								
<ol style="list-style-type: none"> 1. Profilar lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratzea. 2. Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatzea. 3. Lan-talde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztea. 4. Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra baloratzea. 								
EDUKIAK		Multzoak						
		1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Antolakundea pertsona-talde gisa aztertzea. • Antolamendu-egiturak aztertzea. • Kideek lan-taldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea. 		x					
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa. • Talde motak sektoreko industrian, dituzten eginkizunen arabera. • Lan-taldeen sorrera aztertzea. • Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarritzko elementu gisa. • Lan-talde eraginkorraren ezaugarriak. 		x					
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena baloratzea. • Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak baloratzea. • Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea. 		x					

JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helb inplik	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			lr.	lk.			
I1. Azalpena, gizabanakoari, rolei, taldeei eta lan-taldeen motei buruzkoa.	2-4	1 h.	x		Irakasleak, rolei eta taldeei buruzko azalpen baten bidez, lan-taldeei buruzko hasierako kontzeptuak erakutsiko dizkie ikasleei.	Helburua da ikasleei lan-taldeekin lotutako kontzeptuak interpretatzen laguntzea.	Ordenagailu bat ikasleko.. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituena.
I2-E1. Azalpena eta praktika gidatua, ikastetxe bateko lan-taldean inguruan.	1-2-3-4	2 h.	x	x	Irakasleak, lehen orduan, ikastetxeetan eratzten diren talde motei buruzko azalpen bat egingo du. Horien artean, besteak beste, ordezkaritza-organo gorenak, sailak, kalitate-taldeak edo ingurumen-batzordeak daude. Irakasleak lan-talde zehatzekin ohituko dira eta horietan parte hartu ahal izango dute. Bigarren orduan praktika gidatua egingo dugu. Horretan, ikasleek, ikastetxeko ingurumenarekin lotuta, etengabeko hobekuntzarako talde bat osatuko dute.	Jarduera honek helburu asko ditu: aurreko jardueran ikusitako kontzeptuak zabalduko ditugu, prozedurazko zatia aplikatuko dugu, ikastetxearen funtzionamenduan ikaslearen partaidetza sustatuko dugu eta, azkenik, zeharkako gaiak gaineratuko ditugu (batez ere, bizikidetzarako hezkuntza eta ingurumen-hezkuntza).	Ordenagailua. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituena. Bileren aktak.
I3. Azalpena, enpresan taldeek betetzen dituzten eginkizunei buruzkoa.	1-2-3-4	1 h.	x		Irakasleak, enpresetan taldeek duten funtzionamenduari buruzko azalpen baten bidez, beharrezko kontzeptuak gaineratuko ditu ikasleak ondorengo jardueretan horiek erabili ahal izateko.	Jarduera amaitzean, ikasleak taldeek betetzen dituzten eginkizunak bereizten jakingo du.	Ordenagailu bat ikasleko.. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituena.
I4-E2. Azalpena eta praktika autonomoa, taldeak sortzeko faseen inguruan.	1-2-3-	2 h.	x	x	Irakasleak taldeak sortzeko faseei buruzko azalpen bat egingo du. Ikasleek talde bat sortzeko jarduera praktikoa	Jarduera honen helburua da aurreko jardueretan barneratutako kontzeptuak praktikan jartzea.	Ordenagailua. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala.

					autonoma egingo dute. Horretarako, fitxa bat beteko dute. Gainera, irakasleak jarrerari buruzko ebaluazio-jarduera baten enuntziatua emango die ikasleei. Jarduera horretan, kontratazio batean izandako gatazka baten kasua planteatuko da. Gatazka hori 4. unitate didaktikoa (lan-kontratuak) amaitzean ebatziko da.		Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituena. Bete beharreko fitxa.
I5. Azalpena, taldeen gainean jarduteko teknikei buruzkoa.	1-2-3-4	2 h.	x		Irakasleak taldeen gainean jarduteko teknikei buruzko azalpen bat egingo du.	Jarduera honen helburua da taldeen gainean jarduteko teknikak azaltzea.	Ordenagailu bat ikasleko.. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituena.
E3. Berariazko ebaluazio-jarduera.	1-2-3-4	2 h.		x	Jarduera praktikoa gidatua egingo da: irakasleak ikasleei ariketa bat emango die taldeko etekinaren aurrean etekin indibiduala baloratzeko. Ikasleak fitxa bat bete beharko du. Bertan, ariketaren emaitzak jasoko ditu.	Jarduera honen helburua da taldeen inguruan ikusitako guztia laburtzea. Ikasleak betetako fitxak ebaluazio-elementu gisa balioko du.	Ikasleari buruzko datuak jasotzea erraztuko duten fitxa edo dokumentuak.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> Unitate honek aukera ematen du zeharkako ia gai guztien sarrera egiteko. Beraz, ahalik eta zeharkako gai gehienak jorratuko dituzten ariketak hautatzen saiatuko gara. Zehazki, gai hauek jorra daitezke: balioetan oinarritutako hezkuntza, genero-berdintasuna, arraza-arrazoiengatik ez diskriminatzea, ingurumena babestea, etika profesionala. Jarduera praktikoa, talde bakoitzari arazo horiekin lotutako gai bana proposa diezaiokegu. Lehentasunez, taldekideek berez dagozkien bestelako rola bete behar dituzte (adibidez: ikasle immigrante batek immigranteak kontratatzen dituen bertako enpresa baten jabearena egin dezake, eta immigranteen papera bertako ikasleek egin dezakete). Eskolako bulling-kasuetatik abiatuta, laneko mobbing-a jorratzeko gaiak proposa daitezke. Etika profesionalaren aurkako jardunen kasuak jar daitezke (esaterako, molestatu ez dezaten zaharrak drogatzen dituzten zaharren egoitzak, enpresetako finantza-zuzendariak, enpresaren funtsak euren poltsikora bideratzen dituztenak...). E1, E2 eta E3 praktikan, edukiak eta prozedurak ez ezik, jarrerak ere ebaluatu behar dira. 							

3. unitate didaktikoa: GATAZKA KUDEATZEA						Iraupena: 9 ordu						
IE2: Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.												
Ikaskuntzaren helburuak:												
<ol style="list-style-type: none"> 1. Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundearen alderdi ezaugarritzat onartzea. 2. Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatzea. 3. Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztea. 												
EDUKIAK						Multzoak						
						1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> • Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea. • Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak. • Gatazkak ebazteko moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea. 						x				
KONTZEPTUZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> • Gatazka zehaztea: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak. • Gatazka ebatzi edo deuseztatzeko metodoak: bitartekotza, adiskidetzeta eta arbitrajea. 						x				
JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> • Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea. • Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea. 						x				
JARDUERA			METODOLOGIA					BALIABIDEAK				
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den		ZEREKIN egingo den				
			Ir.	Ik.								
I1-E1. Azalpena eta praktika gidatua, gatazkaren kontzeptuari eta sorburuei buruz.	1-2-3	2 h.	x	x	Irakasleak laneko gatazken sorburuei buruzko azalpen bat egingo du. Gainera, ikasleei fitxa bat emango die, lan-munduko benetako gatazkei buruzko datuekin betetzeko. Fitxa horri esker, gaiaren inguruko aurreitazko ezagutza ebalua	Helburua da ikasleei laneko gatazkekin lotutako kontzeptuak interpretatzen laguntzea. Horrez gain, jarduera praktikoa autonomoa baliagarria izan daiteke E1 ebaluazio-		Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Ikasleari buruzko datuak jasotzea erraztuko duen fitxa.				

					daiteke. Ikasleak jarduera praktikoa autonomo gisa beteko du fitxa.	elementu gisa.	
I2. Gatazka motei buruzko azalpena.	1-2	1 h.	x		Irakasleak, gatazka motei buruzko azalpen baten bidez, ikasleari gatazkak sailkatzeko irizpideak emango dizkio.	Ikasleak edozein motatako lan-gatazka sailkatzeko gai izan beharko du.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala.
I3-E2. Azalpena eta praktika autonomoa, gatazkak ebazteko prozesuaren inguruan, horren faseak eta aldagaiak barne direla.	1-2-3	3 h.	x	x	Irakasleak, gatazkak ebazteko prozesuari buruzko azalpen baten bidez (horren faseak eta aldagaiak barne direla), ikasleari jarduera honen edukiak erakutsiko dizkio. Irakasleak ikasleari, praktika autonomo gisa, benetako gatazka baten kasua proposatuko dio, horren faseak barne direla. Ebaluatzeko praktika izan daiteke.	Jarduera amaitzean, ikasleak laneo gatazka baten faseak ezagutuko ditu.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen. Ikasleari buruzko datuak jasotzea erraztuko duen fitxa.
I4-E3. Azalpena eta praktika autonomoa, konponbide baketsuen inguruan.	1-2-3	3 h.	x	x	Irakasleak, konponbide baketsuei buruzko azalpen baten bidez, besteak beste, adiskidetzaren, bitartekotzaren edo arbitrajearen teknikekin ohituko du ikaslea. Ondoren, ikasleari praktika gidatuak proposatuko dizkio, benetako kasu batetik abiatuta zein konponbide hartu den jakiteko informazioa bila dezan.	Jarduera honen helburua da ikaslea gaitatea gatazka bat konpontzen parte hartzeko. Horrez gain, jarduera praktikoa gidatua baliagarria izan daiteke E3 ebaluazio-elementu gisa.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen. Bete beharreko fitxa.



OHARRAK

4. unitate didaktikoa: LAN KONTRATUAK		Iraupena: 17 ordu						
IE3: Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratueta horiek onartzen ditu.								
Ikaskuntzaren helburuak:								
<ol style="list-style-type: none"> 1. Lan-zuzenbidearen oinarriko kontzeptuak identifikatzea. 2. Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereiztea. 3. Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztea. 4. Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatzea. 5. Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratzea. 6. Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatzea. 								
EDUKIAK		Multzoak						
		1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea. • Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea. • Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera. 			x				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lan-zuzenbidearen oinarriko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren artetarrak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa. • Lan-kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak. • Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak. • Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedernaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak). • Kontratu aldatu, eten eta deuseztatzea. 			x				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lana arautzearen beharra baloratzea. • Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa. • Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea. • Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboetarako. • Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta baloratzea. 			x				

JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helb inplik	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
I1-E1: Azalpena, lan-kontratuekin lotutako oinarrizko alderdiei buruzkoa.	1-2-3	2 h.	x	x	<p>Irakasleak, besteren konturako lan-harremanari buruzko azalpen baten bidez, aurkezpen baten laguntzarekin, ikasleei laneko harremanaren oinarrizko alderdiak erakutsiko dizkie. Gainera, kontzeptu horiek zein neurritaraino barneratu dituzten ebaluatu eta identifikatu ahal izateko galdera sorta emango die. Garrantzitsua da irakasleak lan-harremanaren legezkotasunaren oinarri diren kontzeptu jakin batzuk azpimarratzea, hala nola, besterentasuna, enpresa-kontrola, lege-iruzurra...</p> <p>Ikasleak jarduera praktikoa autonomo gisa osatuko du galdera sorta.</p>	<p>Helburua da ikasleei pertsonen administrazioarekin lotuta ez dagoen edozein profesionalen elkarrizketetan ohikoak ez diren kontzeptuak interpretatzen laguntzea. Jarduera hau amaitzean, lan-kontratuen ezaugarri garrantzitsuenak, eta norberaren eskubideak eta betebeharrak ezagutzeko gai izan behar dute.</p> <p>Horrez gain, jarduera praktikoa autonomoaren emaitzak jasotzea baliagarria izan daiteke E1 ebaluazio-elementu gisa.</p>	<p>Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen. Ikasleari buruzko datuak jasotzea erraztuko duten galdera sortak edo dokumentuak.</p>
I2. Azalpena eta erakustaldia, lan-kontratuen sailkapenari eta motei, eta datuak bilatzeari buruz.	4	2 h.	x	x	<p>Irakasleak, lan-kontratuen modalitatei buruzko azalpen baten bidez, kontratuak sailkatzeko irizpide batzuk emango dizkio ikasleari. Horren ondoren, kontratuak iraupenaren arabera antolatuko dira, eta sailkapena osatzeko beste irizpide batzuk gaineratuko dira.</p> <p>Irakasleak lanarekin lotutako edukietako web-orrietan (batez ere, INEMen webean) sartzeko erakustaldi bat egingo du. Ikasleak web-orri horietan jarduera praktikoa autonomoa egin beharko du: eskatzen zaion kontratu mota aurkitu eta ordenagailura jaistea edo inprimatzea.</p>	<p>Ikasleek edozein motatako kontratua dagokion eredu ofizialean aurkitzeko eta kontratu bakoitzari dagokion legezko fitxa kontsultatzeko gai izan beharko dute.</p>	<p>Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.</p>

I3. Azalpena, kontrataziorako pizgarriei buruzkoa.	4-5	1 h.	x		Irakasleak, enplegua sustatzeko neurriei edo pizgarriei buruzko azalpen baten bidez, jarduera honen edukiak erakutsiko dizkio ikasleari.	Jarduera amaitzean, ikasleak enplegua sustatzeko administrazio publikoek erabiltzen dituzten neurrien eskema ezagutuko du, eta kontratu mota bakoitzari dagozkion pizgarriak (batez ere kontratu mugagabeekin lotutakoak) identifikatuko ditu.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.
I4-E2. Erakustaldia eta praktika autonomoa, lan-kontratuaren eredua betetzeari buruzkoa.	3-4-5	4 h.	x	x	Irakasleak erakustaldi bat egingo du aurreko jardueretan lortutako kontratu baten eredu ofiziala nola bete azaltzeko. Eredu ofizialaren zatiak (goiburukoa, klausula arruntak, klausula gehigarriak, oina) erakutsiko ditu eta, atal bakoitzean kontuan hartu beharreko kontzeptuak azaltzen dituen bitartean, zati horiek beteko ditu. Jarraian, ikasleei praktika autonomoak proposatuko dizkie, kasu batean eskatutako kontratuaren eredu ofiziala aurkitzeko, eta kasuaren ezaugarriak kontuan izanda hura bete eta inprimatzeko. Ebaluatzeko praktika bat izan dadin.	Jarduera honen helburua da ikaslea gai izatea kontratuen eredu ohikoena betetzeko.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.
I5. Gai hauei buruzko azalpena: Lan-kontratuen aldaketak. Kontratua etetea.	6	2 h.	X	x	Irakasleak lan-kontratuaren aldaketa jakin batzuk dakartzaten arazoiei buruzko azalpen bat egingo du. Komeni da ikasleei dagoeneko betetako ereduaren sarbidea ematea. Eredu horiek halako jakinarazpen gehienetarako ezarritako gutxieneko eskakizun formalak betetzen dute. Komenigarria litzateke ikasleei ebatzitako kasuak erakustea (laneo jurisprudentziatik lor daitezke), dagozkion aldaketa motari buruz euren iritzia eman	Jarduera honen helburua da ikasleek jatorrizko kontratuen hitzartutako baldintzak aldatzea ekar dezaketen arazoak ezagutzea.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.



					dezaten eta, are gehiago, langileak egindako erreklamazioaren inguruan duten iritzia aurretiaz azaldu dezaten.		
I6-E3. Azalpena eta praktika gidatua, lan-kontratua iraungitzeari buruzkoa.	5	3 h.	x	x	Irakasleak, kontratua iraungitzeko arrazoiei buruzko azalpen baten bidez, egoera horrek dakartzan ondorio eta eskubide nagusiak bilduko dituen eskema adieraziko dio ikasleari. Gainera, kitapenaren kalkuluan sartu behar diren kalte-ordain guztiak aditzera emango ditu. Ondoren, praktika gidatuaren bitartez, irazpen-kasu bat ebatziko da eta dagokion kitapena kalkulatu da. Hori eta gero, ikasleek irazpen-kasu bat bere kabuz ebatz dezaten proposa daiteke. Ebatzitako kasu hori praktika ebaluagarri izan daiteke.	Jarduera honen helburua da ikasleek kitapenaren alderdi formalak ezagutzea eta lan-harreman sinple bati dagokion kitapena kalkulatu jakitea.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.
E4. Eztabaida, laneko gatazka-egoera bati buruzkoa.	1-2-3-4-5-6	3 h.		x	2. unitate didaktikoan planteatutako kasua (laneko gatazka-egoera bat aztertu behar da) ikasleek taldean landu behar dute. Taldea 2. unitate didaktikoan osatu behar zen. Lan-taldeak planteatzen den kasua aztertu behar du. Gatazka horretarako konponbide bakoitzaren abantailak eta eragozpenak azalduko dira, eta, ondoren, eztabaida bat ezarriko da, proposatutako gaiaren inguruan talde bakoitzak bere gogoetak eta ondorioak azaldu ditzan.	Ebaluazio-jarduera honen helburua da irakasleak jarrerazko edukiak ebaluatu ahal izatea. Horretarako, eztabaida egiten den bitartean, eredu batean idatziz jaso behar du ikasle-talde bakoitzak jarrerazko edukien atalean adierazitako zein jarrera hartzen dituen. Gainera, eredu hori osatzeko, oso komenigarria litzateke bertan ikasle bakoitzak izandako partaidetza-maila jasotzea.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Taldea bakoitzak landutako aurkezpenen fitxategia.



OHARRAK



5. unitate didaktikoa: HITZARMEN KOLEKTIBOAK		Iraupena: 9 ordu						
IE3: Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratueta horiek onartzen ditu.								
Ikaskuntzaren helburuak:								
<ol style="list-style-type: none"> 1. Lan-zuzenbidearen oinarriko kontzeptuak identifikatzea. 2. Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereiztea. 3. Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztea. 4. Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaien hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztea. 5. Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatzea. 								
EDUKIAK		Multzok						
		1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea. 			x				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lan-zuzenbidearen oinarriko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren artetzarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa. • Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldirak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak). • Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa. • Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana... 			x				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lana arautzearen beharra baloratzea. • Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa. • Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea. • Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta baloratzea. 			x				



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
I1-E1. Hitzarmen kolektiboetako buruzko azalpena eta praktika gidatua.	1-2-3	3 h.	x	x	Irakasleak, besteren konturako lan-harremanari buruzko azalpen baten bidez, aurkezpen baten laguntzarekin, ikasleei hitzarmen kolektiboaren motak (nazionala, autonomikoa, probintziala, arlokakoa) antzematen erakutsiko die. Gainera, erakustaldi baten bitartez, eredu hitzarmen baten ulermenezko irakurketa egingo du, datu garrantzitsuak ondorioztatze asmoz (lanaldia, oporrak, indarraldia, soldata-kontzeptuak...). Era berean, egin beharreko praktika gidatua, Interneten esparru desberdinetako hitzarmen kolektiboak aurkituko dira. Praktika gidatu horren ondoren, irakasleak proposatutako hitzarmenak aurkitu eta jaisteko praktika autonomoa eska daiteke. Praktika hori ebaluagarria izan daiteke, eta ondorengo jardueretarako oinarri-dokumentuak eskura izateko ere baliagarria izan daiteke.	Helburua da ikasleari interesatzen zaizkion hitzarmen kolektiboak Interneten aurkitu eta jaisteko prozedura erakustea. Horrez gain, jarduera praktikoa autonomoa baliagarria izan daiteke E1 ebaluazio-elementu gisa.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.
I2-E2. Hitzarmen kolektiboetako datuak ondorioztatze praktikak.	1-2-3-4	5 h.	x	x	Irakasleak, aurreko jarduerako praktika gidatua eta ikasleek aurreko praktikan ere lortutako hitzarmenaren oinarrituta, praktika autonomoak proposatuko ditu. Horietan, ikasle bakoitzak eskatzen zaizkion datuak eskuratu beharko ditu, bai lan-baldintzen inguruan, bai eta ordainsari-kontzeptuen inguruan ere. Praktika horiek aukera eman behar dute, hitzarmen bakar bateko datuak lortzeko ez ezik, bi hitzarmenen edo gehiagoren artean konparazioak ezartzeko ere. Praktika horietako bat edo gehiago praktika ebaluagarri izan daiteke.	Ikasleak gai izango dira hitzarmen kolektibo bat ulertuz irakurtzeko (ahal dela, dagokien titulu akademikoarekin lotutako arloren batekoa izango da), eta beren lanean eragina duten datu garrantzitsuenak ondorioztatze (lanaldia, atsedendia, oporrak, ordutegia, soldata-kontzeptuak...). Horrez gain, jarduera praktikoa autonomoren bat baliagarria izan daiteke E2 ebaluazio-elementu gisa.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.



13. Lan-ingurune berriei buruzko azalpena.	5	1 h.	x	x	Irakasleak, lan-ingurune berriei buruzko azalpen baten bidez, enpresa-antolamenduaren errealitate berriak (merkataritza-kontratueta, informatika- eta komunikazio-teknologia berrietan, aldi baterako laneko enpresen bidezko harremanetan... oinarritutakoak) ezagutaraziko dizkio ikasleari.	Jarduera amaitzean, ikasleak enpresei zerbitzu egiteko beste era batzuk ezagutuko ditu.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.
OHARRAK							

6. unitate didaktikoa: SOLDATA ETA GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK

Iraupena: 15 hrdu

IE3: Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratueta horiek onartzen ditu.

IE4: Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Soldata-ordainagria aztertzea eta haren osagai nagusiak identifikatzea.
2. Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratzea Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
3. Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak adieraztea.
4. Gizarte Segurantzako sisteman dauden araubideak identifikatzea.
5. Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuak eta langileek dituzten betebeharrak identifikatzea.
6. Langilearen kotizazio-oinarriak, eta langileari eta enpresaburuari dagozkien kuotak identifikatzea.
7. Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatzea eta eskakizunak identifikatzea.
8. Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztea.
9. Oinarriko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatzeko.

EDUKIAK		Multzoak						
		1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Nomina interpretatzea. • Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea. • Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebatzea. 			x	x			
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzeak, soldata-bermeak. • Soldata-kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZ. • Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak. • Enpresaburuaren eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, baxak eta kotizazioa. • Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena. • Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua. • Langilearen euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak. 			x	x			
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea. • Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea. 				x			

JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
I1-E1. Azalpena eta praktika gidatua, soldatari eta soldata motei buruzkoa.	1	2 h.	x	x	<p>Irakasleak ikasleek soldataren inguruan zer dakiten egiaztatuko du. Horretarako, irakasleak praktika autonomo gidatua egin dezake ikasleei egindako galderetan oinarrituta. E1.</p> <p>Ondoren, irakasleak ikasleei soldataren definizioa azalduko die. Jarraian, definizioaren osagarri moduan, irakasleak zenbait soldata motaren adibideak emango dizkie ikasleei.</p> <p>Azkenik, irakasleak taula edo eskema bat egingo du, soldata-osagarriak eta soldataz kanpokoak laburtzeko. Irakasleak osagarri bakoitzaren ezaugarriak azalduko ditu, eta soldata-osagarri edo soldataz kanpoko osagarri bakoitzak Gizarte Segurantzako kuotetan zein ekarpen egiten duen adieraziko du.</p>	<p>Lehenik, irakasleak aurretiazko ebaluazioa egingo du, ikasleek soldataren eta soldata moten inguruan zein ezagupen dituzten jakiteko. E1.</p> <p>Bigarrenik, soldata definitzearen eta soldata motak sailkatzearen arazoia da ikasleak nominaren oinarria zein den (hain zuzen, aipatutako osagarriak) ikas dezan.</p>	<p>Ordenagailu bat ikasleko.</p> <p>Internet-konexioa.</p> <p>Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala.</p> <p>Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituena.</p>
I2-E2. Nominak kalkulatzeko azalpena eta praktikak.	1	6 h.	x	x	<p>Irakasleak, adibideen bitartez, nomina nola egiten den eta langileak bere nominan jasoko duen likidoaren emaitza ("JASOTZEKO LIKIDOA") nola lortzen den azalduko du.</p> <p>Ikasleek zenbait ariketetan oinarritutako jarduera praktikoa autonomoak egingo dituzte. Horietan, langileen nominak egingo dituzte. Ariketa horiek egoera desberdinak planteatuko dizkiete ikasleei, zenbait nomina mota bete behar izateko. E2.</p>	<p>Ikasleak hileko ordainsari gisa langileari zenbat ordaintzen zaion kalkulatzeko ikasi behar du.</p> <p>Ikasleak ariketen bidez nominak interpretatzeko ikasiko du. Horrela, unirate didaktikoaren lehen ikaskuntza-helburua beteko da. Irakasleak, ikasleek lortutako ezagupenak ebaluatzeko, haiek egindako ariketa batzuk bildu eta zuzendu ditzake. E2.</p>	<p>Ordenagailu bat ikasleko.</p> <p>Internet-konexioa.</p> <p>Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala.</p> <p>Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituena.</p> <p>Ordenagailu bidez nominak egiteko programa bat erabil daiteke.</p>

<p>I3-E3. Azalpena eta praktika autonomoa, Gizarte Segurantzako sistemaren funtzionamenduari buruz.</p>	2-3-4	1 h.	x	x	<p>Irakasleak azalpen bat egingo du Gizarte Segurantzako sistemaren funtsari eta funtzionamenduari buruz. Era berean, kontingentziak eta Gizarte Segurantzaren gainerako araubideak azalduko ditu.</p> <p>Azkenik, ikasleek, jarduera praktikoa autonomoa gisa, Gizarte Segurantzaren araubideak eta kontingentziak jasoko dituen eskema edo taula egingo dute. E1.</p>	<p>Jarduera honen helburua da ikasleek Gizarte Segurantzako sistemaren oinarriak ikastea. Hala, prestazioetarako eskubidea izateko langileek hileroko zergatik kotizatzen duten ulertuko dute.</p>	<p>Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.</p>
<p>I4-E4. Azterketa, kotizatze betebeharre, eta kotizazio-oinarri eta -kuotei buruzkoa.</p> <p>I4.1. Kotizatze betebeharre buruzko azalpena.</p> <p>I4.2-E4. Kotizazioari buruzko praktika autonomoak.</p>	5-6	4 h. 1 h. 3 h.	x	x	<p>Irakasleak ikasleei enpresaburuak eta langileak kotizatze dituzten betebeharrak azalduko dizkie, bai eta ordaintetako egiteko erak eta epeak ere.</p> <p>Jarraian, irakasleak kotizazio-oinarriak zein diren eta kotizazio-kuotak kalkulatzeko zein tasa aplikatzen diren azalduko du.</p> <p>Azkenik, irakasleak enpresaburuari eta langileari sortzen zaizkien benetako egoeren inguruko ariketak planteatuko dizkie ikasleei. Ikasleek jarduera praktikoa autonomoa egingo dute, kotizazio-kuoten kalkuluan oinarritutakoa, irakasleak emandako datuekin. E2.</p>	<p>Jarduera honen helburua da ikasleak jakin dezan enpresaburuak eta langileak egoera praktikoa bakoitzean kotizatu behar dutena kalkulatzeko. Era berean, ikasleak Gizarte Segurantzaren kuotak nola eta zein epetan ordaindu behar diren ikasiko du.</p>	<p>Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.</p>
<p>I5-E5. Azalpena eta praktika autonomoa, Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzkoa.</p>	7-8-9	2 h.	x	x	<p>Irakasleak Gizarte Segurantzaren prestazio motak azalduko dizkie ikasleei.</p> <p>Jarraian, irakasleak langabezia-egoera guztiak, eta bakoitzari dagokion prestazioaren epea eta zenbatekoa zein diren azalduko du.</p> <p>Azkenik, ikasleak jarduera praktikoa autonomoa egingo du: legezko langabezia-egoera bakoitzerako prestazioaren epea eta zenbatekoa kalkulatuko ditu. E3.</p>	<p>Jarduera honen helburua da ikasleak jakin dezan kotizatzen duten langileek zein prestaziotarako eskubidea duten. Ikasleak, era berean, langabezia dauden langileek jasotzeko eskubidea duten prestazioen zenbatekoa eta epea kalkulatzeko ikasiko du.</p>	<p>Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.</p>



OHARRAK

7. unitate didaktikoa: LANEKO ARRISKUEI BURUZKO SARRERA ETA IDENTIFIKAZIOA		Iraupena: 15 hrd						
IE5: Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-ingurune lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.								
Ikaskuntzaren helburuak:								
<ol style="list-style-type: none"> 1. Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratzea. 2. Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatzea. 3. Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatzea. 4. Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-ingurunean ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatzea. 5. Enpresan dauden arriskuak ebaluatzea. 6. Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztea. 7. Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatzea, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez. 								
EDUKIAK		Multzoak						
		1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea. • Arrisku-faktoreak aztertzea. • Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. • Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. • Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea. • Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea. • Lanbide-eginkizunaren araberako arrisku-protokoloa ezartzea. • Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea. 					X		
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Arrisku profesionalaren kontzeptua. • Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzko elementu gisa. • Profilari lotutako lan-ingurunearen berariazko arriskuak. • Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak. 					X		
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia. • Lanaren eta osasunaren arteko lotura baloratzea. • Prebentzio-neurriak hartzeko interesa. • Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia baloratzea. 					X		

JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK	
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
I1. Azalpena, osasunaren eta laneko arriskuen kontzeptuei buruzkoa.	1-2-3	2 h.	x		Irakasleak osasunari eta laneko arriskuei buruzko azalpen bat egingo du. Garrantzitsua da Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) osasunerako emandako definizioa azpimarratzea. Gainera, lana baldintzatzen duten eta ondoren osasunerako arriskuak ekar ditzaketen aldagaiak aipatu beharko ditu, osasuna bermatzeko teknikarik hoberena arriskuaren prebentzioa dela argi utzita. Azalpenean, ikasleari arrisku-faktoreen sailkapena emango zaio, pertsonak jasan ditzakeen arrisku motak zehaztu ahal izateko. Kalte mota bakoitzarekin batera, prebentzio-teknika bat eman beharko da.	Jardueraren helburua da ikaslea gai honen berezko kontzeptuetan eta hiztegian sartzera. Era berean, garrantzitsua da bere egitea prebentzioa dela osasuna ziurtatzeko baliabiderik onena, sortutako kaltea konpondu baino.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.	
I2. Erakustaldia eta praktika gidatua, arriskuen prebentzioari buruzko web ofizialak erabiltzearen inguruan.	1-2-3	2 h.	x	x	Ikasleek irakasleak gidatutako praktika hau egingo dute: Laneko Segurtasun eta Higienarako Institutu Nazionalaren webgunean sartzera eta, bertan, arriskuen prebentziorako oinarriko arauak eta dokumentuak aurkitzea. OSALANen webgunean ere sartuko dira. Bertan, EAEko araudiari eta estatistikei buruzko atalak aurkitu beharko dituzte.	Jarduera hau amaitzean, ikaslea prestatuta egongo da ondorengo ariketetan berorrek erabiltzeko beharrezko testuak, gidak, araudiak eta estatistikak aurkitzeko.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.	
I3. Azalpena eta praktika autonomoak, arriskuak identifikatzeari buruzkoak.	4-5-6-7	8 h.	x	x	Irakasleak arrisku orokorreari buruzko azalpen bat egingo du, eta horiek Laneko Arriskuen Prebentziorako Legearen irizpideei jarraituz sailkatuko ditu.	Jarduera honen helburua da ikasleek euren lanbide-arloaren berezko jarduerarekin lotura handiena duten arriskuak identifikatzeko inprimakiak betetzea. Gainera, egindako praktikaren bat ebaluazio-elementu bihurtzeko.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.	
I3.1. Azalpena, arriskuak identifikatu eta sailkatzeari buruzkoak.		1 h.		x	Irakasleak ikasleei erakutsiko die lehen aipatutako webguneetan arloen eta moten arabera arriskuak identifikatzeko dokumentuak nola aurkitu.			
I3.2. Praktika gidatuak, arriskuak identifikatzeari buruzkoak.		2 h.			x			Irakasleak ikasleei eskatuko die Interneten aurki ditzaten euren lanbide-arloarekin lotura handiena duten arriskuak identifikatzeko gidak (arrisku elektrikoa duten lanetarako gidak, bulegoetako gidak, kutsadura mota
		5 h.			x			



I3.3-E1. Praktika autonomoak, arriskuak identifikatzeari buruzkoak.					jakin batzuk dituzten giroetako arriskuen gidak...).		
I4. Azalpena eta praktika gidatua, laneko arriskuak ebaluatzeari buruzkoa.	5	3 h.	x	x	Irakasleak ikasleei azalduko die zein ebaluazio-prozedura erabil daitekeen laneko arriskuak identifikatu ondoren. Ikasleei eredu bat emango die, arriskuak izan dezakeen larritasuna eta enpresak onartutako jasankortasun-maila kuantifikatu ahal izateko. Ikasleek irakasleak planteatutako kasuarekin beteko dute eredua.	Jarduera honen helburua da ikasleak ulertzea laneko arriskua ebaluatzeko prozesua, neurri zuzentzaileak eta prebentziokoak ezarri aurreko urrats gisa.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.
OHARRAK							

8. unitate didaktikoa: PREBENTZIOA KUDEATZEA		Iraupena: 15 hrd						
<p>IE6: Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako agente guztien erantzukizunak identifikatuta. IE7: Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneako arrisku-egoerak aztertzen ditu.</p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztea. 2. Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatzea, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera. 3. Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztea. 4. Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatzea. 5. Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziak bane hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratzea. 6. Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztea. 7. Larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatzea. 8. Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztea. 9. Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertzea. 10. Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertzea. 11. Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatzea. 12. Langilearen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztea, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adieraztea. 								
EDUKIAK		Murtzoak						
		1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak, oinarriko prebentzio-tresna gisa. • LAP Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko oinarriko araua aztertzea. • LAParen arloko egitura instituzionala aztertzea. • Enpresan dauden erantzukizun-mailak zehaztea. • Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea. • Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea. • Norbera babesteko teknikak identifikatzea. • Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakoak dituzten betebeharrak aztertzea. • Seinaleztapen motak aztertzea. • Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea. • Larrialdi-egoerak aztertzea. • Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea. • Langileen osasuna zaintzea. 						X X X X X X X X	X X X X
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak. • Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. • Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. • LAPean eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak. • Prebentzioaren kudeaketa enpresan. • Langileen ordezkaritza prebentzioaren arloan (LAPeko oinarriko teknikaria). 						X X X X X	

	<ul style="list-style-type: none"> Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak. Prebentzioaren plangintza enpresan. Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan. Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak. Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa. Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarrizko kontzeptuak. 									X					X	
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> LAParen garrantzia eta beharra baloratzea. LAPeko eta LO Laneko Osasuneko agente gisa duen posizioa baloratzea. Erakunde publikoek eta pribatuak LOan errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea. Dagokion kolektiboaren larrialdi-planak baloratzea. Larrialdien aurreikuspena baloratzea. Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea. Proposatutako jardueretan bete-betean parte hartzea. 									X				X		
JARDUERA			METODOLOGIA						BALIABIDEAK							
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den									
			Ir.	Ik.												
11. Azalpena, prebentzioa kudeatzeko sistemari buruzkoa.	1-2-3-4-5-7-9-10-11-12	2 h.	x		Irakasleak azalpen bat egingo du, prebentzioa kudeatzeko sistemen oinarrizko alderdi teorikoei eta haien elementuei buruz. Enpresan prebentzioa antolatzeke erak aipatuko ditu: bertako langileak, prebentzio-zerbitzu propioa, kanpoko prebentzio-zerbitzua. Prebentzioa kudeatzeko sisteman barne hartu beharreko elementu nagusiak azalduko ditu: prebentzio-programak, prestakuntza-plana, larrialdi-plana, osasunaren zaintza, seinaleztapena, norbera babesteko ekipamendua.	Ikaslea gai izango da prebentzioa kudeatzeko sistema batean gutxienez egon behar duten elementuak deskribatzeko.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.									
12. Praktika gidatuak, prebentzioa kudeatzearekin lotutako kontzeptuei buruzkoa.	1-2-3-4-5-7-9-10-11-12	3 h.	x	x	Irakasleak seinaleak aurkitzeko ariketak (kasu zehatzetara egokitutakoak) planteatu eta ikasleekin batera ebatziko ditu. Langilea norbera babesteko ekipamenduz hornitzea eskatzen duten kasuak ere planteatu eta ebatziko dira. Kasu horiek Laneko Segurtasun eta Higienarako Institutu Nazionalaren eta OSALANen webguneetan aurki daitezke.	Ikaslea gai izango da ebatzitako kasu horietan lortutako ezagutza metodologia bera erabiliz planteatzen diren beste kasu batzuetan aplikatzeko.	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa. Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala. Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.									
13. Azalpena, enpresan arriskuen prebentzio-	6-8	2 h.	x		Irakasleak prebentzio-lanaren antolamenduari buruzko azalpen bat egingo du, eta ikasleei	Ikasleak prebentzioaren alorrean enpresek eta langileak dituzten	Ordenagailu bat ikasleko. Internet-konexioa.									

sistema abiarazteari buruzkoa.					<p>Laneko Arriskuen Prebentziorako Legearen metodologia erakutsiko die: arriskua identifikatzea, arriskua ebaluatzea, neurri zuzentzaile egokia aukeratzea, neurri zuzentzaileak ezartzea, zaintza.</p> <p>Gainera, partaidetza sustatzeari dagokionez enpresak dituen betebeharrak azalduko ditu: prebentzioko prestakuntza, etengabeko informazioa, langileen iritzia. Horrez gain, lehen laguntzen inguruko kontzeptuak, eginkizuna, kalteak eta jardunak, eta soroslearen irudiaren eskakizunak aztertuko ditu.</p>	<p>betebeharrak eta eskubideak ezagutuko ditu, eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Legearen prebentzio-metodologiari buruzko ezagutza egokia lortuko du.</p> <p>Ikasleak medikurik edo pertsona kualifikaturik ez dagoenean istripua izan duen pertsona bati laguntzeko beharrezko zaintzak eta jardun-arauak identifikatuko ditu.</p> <p>Ikasleak lehen laguntzetako botikina hornitzeko gai izan beharko du.</p>	<p>Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala.</p> <p>Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.</p>
I4. Praktika gidatuak, prebentzioa kudeatzeari buruzkoak.	6-8	3 h.	x	x	<p>Irakasleak kasu praktikoa planteatuko du, ikasleak egiten ari diren lanbide-arloarekin lotuta, eta, haiekin batera hura ebatziko du, lehen ikusitako metodologiari jarraituz: identifikazioa, ebaluazioa, neurri zuzentzaileak. Laneko Segurtasun eta Higienarako Institutu Nazionalaren webgunean ematen diren gida praktikoa kasuak lor ditzakete.</p> <p>Aztertu ahal izango den kasuetako bat lehen laguntzei buruzkoa izango da</p>	<p>Jarduera honen helburua da ikasleak arriskuen ebaluazioari buruzko gida ofizialak eta/edo ereduak betetzea. Lehen laguntzetako botikinaren oinarriak edukia jasoko duen kontrol-zerrenda ere prestatuko da</p>	<p>Ordenagailu bat ikasleko.</p> <p>Internet-konexioa.</p> <p>Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala.</p> <p>Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.</p>
I5-E1-E2. Praktika autonomoak, prebentzioa kudeatzeari buruzkoak.	6-8	1 h.		x	<p>Irakasleak kasu praktikoa planteatuko ditu, ikasleak egiten ari diren lanbide-arloarekin lotuta, eta ikasleek kasu horiek bere kabuz ebatziko dituzte. Horietako batean, lehen laguntzen kasuan eraginkortasunez erantzuteko beharrezkoak diren jardun egokiak jasoko dira.</p> <p>Gure ikuspegitik interesgarria izan daitekeen praktika-eredua irudizko lantoki baten arriskuak eta lehen laguntzetako materiala aztertzea izango litzateke (planoan, eskolako lantegian...). Praktika horretan, ikasleek arriskuak ikuskatu, hutsuneak antzeman eta neurri zuzentzaileak iradokiko dituzte.</p>	<p>Jarduera honen helburua da ikasleak arriskuen ebaluazioari buruzko gida ofizialak eta/edo ereduak betetzea. Gainera, jarduera horietakoren bat E1 ebaluazio-elementu izan daiteke. Guztiz gomendagarria litzateke pertsonal medikoarekin lehen laguntzei buruzko jarduera bat antolatzea, jarduera honi balioa emateko, eta bertatze hutsa ebaluazio-elementutzat (E2) hartzea.</p>	<p>Ordenagailu bat ikasleko.</p> <p>Internet-konexioa.</p> <p>Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala.</p> <p>Aurkezpenen fitxategia, erakutsi beharreko kontzeptuak jasoko dituen.</p>
E1. Eztabaida, laneko gatazka-egoera bati buruzkoa.	1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12	2 h.		x	<p>7. unitate didaktikoan planteatutako kasua (laneko arrisku-egoera bat aztertu behar da, hala nola, istripua, gaixotasuna...) ikasleek taldean landu behar dute. Taldea 2. unitate</p>	<p>Ebaluazio-jarduera honen helburua da irakasleak jarrerazko edukiak ebaluatu ahal izatea.</p> <p>Horretarako, eztabaida egiten den</p>	<p>Ordenagailu bat ikasleko.</p> <p>Internet-konexioa.</p> <p>Proiektagailua eta pantaila edo arbel digitala.</p>



					<p>didaktikoan osatu behar zen.</p> <p>Lan-taldeak planteatzen den kasua aztertu behar du. Laneko arriskuaren kasu horretarako konponbide bakoitzaren abantailak eta eragozpenak azalduko dira, eta, ondoren, eztabaida bat ezarriko da, proposatutako gaiaren inguruan talde bakoitzak bere gogoetak eta ondorioak azaldu ditzan.</p>	<p>bitartean, eredu batean idatziz jaso beharko du ikasle-talde bakoitzak jarrerazko edukien atalean adierazitako zein jarrera hartzen dituen. Gainera, eredu hori osatzeko, oso komenigarria litzateke bertan ikasle bakoitzak izandako partaidetza-maila jasotzea.</p>	<p>Talde bakoitzak landutako aurkezpenen fitxategia.</p>
E2. Erakustaldia, lehen laguntzetako pertsonal kualifikatuaren eskutik.	5-6-8-10-11	2 h	x	x	<p>Irakasleak jarduera bat antolatuko du lehen laguntzen inguruan, pertsonal kualifikatuarekin, eta ikasleek pertsonalari lagundu egingo diote.</p>	<p>Ebaluazio-jarduera honen helburua da ikaslea jabearaztea, langile batek istripua izan duenetik pertsonal kualifikatuak egoeraren ardura hartu arte, arriskua arinduko duten jardunen ondo egituratutako prozedura izatearen garrantziaz. Erakutsitako laguntzak eta teknikak irizpideak ekar ditzakete jarrerazko edukiak baloratzeko. Irakasleak adierazle hauek erabil ditzake: laguntza, eztabaidetako parte-hartzea, egiten diren galderak edo antzekoak.</p>	<p>Txostengileek eskatuko dituzte beharrezko baliabideak.</p>
OHARRAK							

